

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
78n. ZENBAKIA
IRAILLA
1984

Maturalez

DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIOS DE
COMUNICACIÓN SOCIAL

PERIFERICO

Entregados ejemplares el día

*24
octubre 1984*



**EUSKALDUNAK PANAMA'RA
ANDIK NORA?**

BENGOETXE'KO ELEIZA BARRIA

Naita aldi onetan Galdakano'ko erri zabalean ez dan aurkitzen garrantzi pizka bat dauan auzune bat txadon edo eleiza bagakorik, Bangoetxe'ko auzune aundiak ez eban eleizarik, nai-ta aspaldiko ogei urte edo geiagoan jaupa edo meza emoten, ospatuten, zan bertan eta bertarako izaten izan eben apaizaren bitartez. Len eta ainbat urtean, auzune orretako erri-kastolearen azpian eta geroago al eben aretoan.

Orrelan izanik, ainbat urte da eleiza barriaren egitamua eginda aurkitzen zala, baiña, batzutan txindirik ezagaitik eta beste batzutan beste oztopo batzukaitik, orain arte **aurkitzen izan dira Bangoetxetarrak benetako txadon bat barik**. Zorionez amaitu barri da gure argazkian ikusi leirekena eta, orretara eleiza nasai apain baten jabe dira bertako kistar-zaleak. Eta, eleiza barri orrekin, aundiagoak edo txikiagoak, zortzi eleiza doguz larunbat, igande ta jai-egun guztietan jaupa ospatzen dabenak.

Jakiña! Galdakano erri zabala da, amabi anei-
neurki (kilometro) luzeran eta zerbait gitxiago zabale-
ran eta, zinbat auzune naiko urrin egiten dira erri-
barrutik, Usansolo, Aperribai, Bangoetxe, Gumuzio
(Erletxe), Elexalde, Zuatzu ta abar. Orixegaitik auzu-
ne bakoitz orretan **aurkitzen da txadon bat**, eta bai
pizkat urbillago aurkitzen dan Urreta auzunean be.

* * *

Aipatu doguzan zortzi eleiza orreatik baten baka-
rrik ez da euzkerazko mezarik ospatuten, baten batek
aginduten ez-badau beintzat. Zergaitik Euzkereaga-
nako destein ori, On Jose Luis zeu apaiz euzkalduna

izanik? Ez alda auzune ortako jauntxuen baten bildu-
rragaitik? Lenago esan dogunez, beste eleiza danetan
egiten da, gitxi edo asko, euzkeraz.

Lerro oneik idatziten asi baiño egun batzuk lena-
go, Bangoetxe'ko txadon barriari izan gintzazan gure
auzokide gaztelar baten illetan eta, pizka bat baiño
geiago minberatuta urten nintzan eleiza apain orreta-
tik eta, ez eleizkizuna gaztelaraz izan zalako ildakoa
ta beren sendia gaztelarraz izanik, gaztelera baiño ez
dakienak, ba genkigulako erderaz izango zirala eleiz-
kizunak.

Eleiz barri orren burruan ainbat iragarki ikusten
dira, danak eleiz-gaiak, izki aundiekaz idatzita, baiña,
orretako bat be ez euzkeraz idatzita, eta ez euzkeraz-
ko itzulpentxu bat be, gitxien-gitxienez be gaztelaraz
da euskeraz egon bear litzakezanak, guzti guztia eus-
kera utzean ipiñi ezin bada be, ainbat atzerritar kista-
rarak ba diralako auzune orretan. Eta ori bertako
Txaunburu jauna euzkalduna, Arratia'ko semea izan-
da.

Zeratako ta noizko dozu, Abasolo jauna, zeure
ama maitearen bularrean ikasi ta gero landu dozun
euskeraz kistar euskaldunakaz eta beti ez erakusteko-
tan? Ala euzko —odoleko semea izan arren ez zara
euzkaldun lez ikusten?

Euzkaldunok emon geinken irudirik bikaiñera,
euskeraz mintzatzea, edonun eta leku guztietan euz-
kaldunak lez aurkeztutea da; sarritan esaten dan lez
euzkera barik ez dago ez Euskalerririk, ez Euzkadi'-
rik.

ALTUNA'TAR JOSU

EUSKALDUNAK LARRI

Naizta itxaropenerako argi-izpi batzuk ikusi izan aspaldiko urteetan, esaterako Araudia, Jaurilaritza, Ekonomi-
ituna ta olakoak, Euskaldunak egoerea geroago ta larriagoa dogu.

Alde batetik, itxarobide orreik illundu egiten jakuz Madrid'eko agintariak, eskoikoak naiz ezkerrekoak, aginduri-
koa emoten sorrak diralako eta sarritan berbea jaten zaleak be bai.

Beste alde batetik egunero sortzen diran arazo barriak erantzun egokirik emoten ez jakelako.

ERBESTERATUAK

Aspaldion euskaldun erbesteratuen arazoa agiri da nabarmen.

Euzkadi'ren alde artu dan jokabide gogorkerizko orregaz batera ez gagoz, ilketa samingarriok ez doguz onar-
tzen, baiña ondo dakigu danaren oiñarria non dagoan eta jokabide ori artu dabenen aurka artzen diran bideak be ez dira
onartzekoak.

Or daukaguz euskaldun erbesteratuak: Batzuk gure aberriaren iparraldean, Frantzia'ko agintarien esku, beste
batzuk Frantzia'ko beste lurralde batzutan, edo Belgika'n, beste batzuk, ostera, urriñago izan daitezcan Panama'n edo
Benezuela'n.

Laterrien arteko itunak dirala-ta ekarriak izan diranak edo ezarteko diranak be ba-dagoz. Jokabide bildurgarria
au be, izparringietan ia egunero irakurten dogun lez eta laterri-arteke erakunde sinisgarriak esan dabene lez edo bertoko
erakundeak ziurtatu dabelako, espetxeetan eta polizi-etxeetan oiñazeak edo tortura'k ezarten dirala ba-dakigulako.

Beste batzuk, ostera alkarizketearen bidez eta errigintzako jokoan zerbait egin daikela uste izanik, izkillu-bidea
itzi eta epaibidera ta erru-garbitzearen bidera sartu diralako.

Eroanak, etorriak eta ekarriak, orra or euskaldunen ibilbide larriak.

OKERREKO URTEBIDEA

Madrid'eko agintariak eta euren alde jokatzen dabene arazo aundi, sakon eta zabal oneri okerreko bidea aurki-
tu nai dautsoe, arerioak birrindutearen bidea, guda-ostean irabazleak artu eban bidea bera.

Or dago GAL taldea ilteari ilteaz erantzuteko gertu eta giroa samingarriago biurtzen.

Or sarritan poliziak artzen dabene jokabidea, euren ustez iltzailleak diranak, epaibide barik, iltea dala biderik
zuzenena uste dabeneak.

URTEBIDE EGOKIA

Esan dogun lez, arazo guzti onen oiñarria non eta zertan dagoan ba-dakigu, Euskalerrriaren nortasuna aintzat ez
artzean. Orregaitik iñoz ez da izango urtebide egokirik ori aintzat artu arte. Arerio batzuk ilten ba'dabez, barriak eta
ugariago izango dira.

Araudi edo "Estatuto"aren bidez asi zan urtebide orretatik oinkada bildurti batzuk emoteko bidea. Ondoren on
batzuk be begien aurrean daukaguz. Bete dagiela ba, oso-osoan Araudi orrek eskatzen dauana, okerreko beste bide ba-
tzuk artzen asi baiño lenago. Baiña orretarako nagikeri aundia agertzen dabe gure Erriaren arerioak.

Eta gero erri-nortasuna, edozein erriri dagokion lez, onartzeko bide guztiak onartu ta billatu: Euzkadi osoa, Ipa-
rraldekoa ta Egoaldekoa, bat egin erri bat lez bizi ta sendotu daiten eta Euzkadi Oso orreri berak nai dauan eta eskatzen
dauan buzu-jabetza eta berak nai dauan neurrian emon.

Orretarako bidea alkarrizketa zabal eta gogo onezkoa da eta au nai dabeneak, Orduña'tik arantza gitxi dira. Zer-
gaitik ete da?

Guda-antzeko bat dabil or eta gudearen azkenik txarrena irabaztea ta galtzea dira. Ariñeko ikuspegi baten gal-
tzea txarrena, baiña irabazleak be ba-dakigu zelan ibiltzen diran edo ibilli diran. Orreik be ez dabe azken ona izaten len-
txuago edo gerotxuago.

IKASTEETARA (Dagidan)

Abade-ikasketak egin dagidazan txikitatik izan neban barruko deia, iñori agertu barik.

Bein baten, neu lez Martin izena eta Sagasti abizena eukazan abade batek, Morga'koa berau, itaun au egin eban Gamiz'ko sakristian, meza-lagun giñanok erantzuk dagigun: Abade izan gura dozue? Eta nik baietz esan neban. Laster jakin eban ori Kristobal gure erriko abadea'k eta ontzat artu eban.

* * *

Orrilla zan. Gamiz'tik aldapazgora gure baserrira etorri zan abadea. Txakurra ausika asi zan eta amak katetik oratuta lotu eta abadea suetean ikusi neban laster. Bai-

ña amak ez eban nai izan nik euren berbetea entzun dagidan eta solora joan eta bedar-ebagiten lan egin dagidala eskatu eustan. Ez gogoz, baiña orrelan egin neban.

Aitak eta amak, lagundu dagiala eskatu eben eta abadeak baietza emon be bai. Dana egoan prest abade-ikastera joatea egin dagidan.

* * *

Arenaza'tar Ignazio Jauna zan erriko maisua eta; arexek lortu eban joateko bear ziran azkenengo ikasketak egin dagidazala.

Gero Asaburu'ko Markaida'tar Mari Andereño irakasleak be irakastaldi batzuk emon ebazan, bes-

te batzukaz batera, gertatzea ondo egin dagidan.

Iraillaren 29'an, Mikel Deunaren egunean, abadeagaz eta beste Fruniz'tar batzukaz, Pantxiko Abaneruaren Hispano-Suizo berebillean sartu nintzan Bergara'ra joan eta ikasketak asi dagidazan.

Guda-osteko urteak ziran, gose-urteak. Amaika urteko mutiko nintzala, antxe geratu nintzan gabonetara arte, gero gabonetan amabost egun etxean egin eta barrero ara udara arte. Ez ziran urte politak. Erdera be gitxi jakin eta euskerarik iñondik entzun ez! Baiña aurrera jarraitu bear, nai dodan elburua lortu dagidan.

MARTINTXU

USANSOLO-84 IPUIN SARIKETA

Usansolo'ko E. A. J.'ren Batzokiak, Ipuin sariaketa bat eratzen dau.

Baldintzak oneik izango dira:

- 1.º Bizkaiko euskeraz idatziak izan bearko dira.
- 2.º Ipuin itzulituak ez dira onartuko.
- 3.º Luzeera iru orri-aldetik bostera bitarte bi lerroartean dituela.

4.º Sariak iru izango dira. 1.ª, 30.000 peseta; 2.ª, 15.000 peseta; 3.ª, 8.000 peseta.

5.º Sari onetatik bat, Usansolo'tar batentzat izango da.

6.º Epea. Urrillaren azkeneko Usansolo'ko E.A.J.'ren Batzokian Oletxe kalean, 16'an Galdakao, izan bearko dira.

7.º Maikoen erabagia Zemendia-
ren 30'an (Ander Deuna)
agertuko da, Usansolo'ko
jaien barruan.

8.º Ipuin sarituen jaube Usansolo'ko E.A.J. Batzokia izango da, eta non argitaratu bere ardura. Sari barik gelditzen diranak Batzokian izango dabez euren lanak uzabaren zain.

9.º Ipuiniak izen-ordeaz bialduko dira eta izen-orde ori gaiñean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea eta izena batera daroazen agiria.

PRAI BARTOLOME'REN EGUNETAN (II)

Prailleak Markina'ko komentutik 1809'gn Urrilla'ren 30'an urten eben, Prantzitar agintariak bearturik. Teresa Deunaren bederatziurrena, egun bi aurreratuz, beti lez andiriko ospatua izan zan. Bata besteari agur egin baiño len, euren praille-jantziz azkenengo bazkaria artu eben batera. Arratsaldean bakoitza bere jaioterrira edo, eziñean, alboko etxeetara joan ziran bizimodu barri bat aste-
ra.

Eleiz-Gurasoen liburuak, bai-ta Karmen'go Amaren zidarrezko koroia ta arri bitxizko errosario andi bat ere komentutik atarateko lain izan ziran prailleak, urteteko agindua artu baiño len. Gauzok Aita Bartolome'ren ardurapean geratuz, geroago, prailleak komentura biurtu ziran-
nean, ara ekarri zitun.

Aitatutako gauzak izan ezik, etxean lagatako ainbeste gauzaren artean, eleiz-jantzi zarrak eta alperrik galdutako liburu batzuk baiño etziran aurkitu geroago.

ONGILLEAK

Azeriak ugaritzen asi ziran sasoi onetan, gogoragariak dira prailen alde jarri ziran gizon prestuak.

Lekeitio'ko Celedonio Axpe, Bizkai-Jaurerri'ko legegizona izan zan bat. Karmeldar bat bere etxean artu, abade-jantziak erosi, eta maia ta oea eskeiñi eutsozan.

Etxebarri'ko parrokoak, Pedro Valentin Alzaa'k, Prai Bartolome bere kontura euki eban.

Etxano'ko Aita Franzisko'k, guztiz gaixo ta makal egoanez, Markiña'n bertan geratu bearra euki eban, eta aal ebenez berari lagunduten saiatu ziran prailleak. Baiña eurak be estualdian bizi ziran eta, Aita Franzisko'ri ostatu-saria, zati batez beintzat, lortzeko, Peñaflores-Kondesa andrearen bitartez, Prai Bartolome argibide ta eskariakin Donosti'ra Touvenot Gudalburuarengana joan zan, baiña ez eban ezer lortu. Aita Franzisko'k, azkenean, Etxano bere erriruntz urten bear izan eban, erriz-erri ta etxez-etxe eskale ibiliz.

Prai Bartolome giltzapean

Praille guztien artean, gure sermolari ospetsuari baka-
rrik eraso eutson Prantzesen gobernuak. 1809'gn Aben-
dua'ren 17'an Ambrosio Egia Yrigoyen, Bilbo'ko
kriminal-auzitegikoaren eta Fernando Etxebarria, bere
eskribuaren eginduz, Prai Bartolome, lenengo, Etxebarri'n
Franzisko Antonio Alzaa'ren etxean baitua izan zan, eta
gero, Bilbo'n.

Bere paper guztiak kendu eutsoezan. Edozelako testi-
guak bere kontra deituak izan ziran. Sermolariak konfesio-
narioan zer irakasten eban jakin gura eben. Auzi onetan
testigantza emon ebenengandik, Epailleak iru edo lau
autormen aukeratu zituan. Prai Bartolome'k, azpitik ero-
siaz, auzitegiko kargudun batengandik salakuntzaren
laburpena lortu eban. Bere baituraren zergaitia Ama Tere-
sa'ren egunean egin eban sermoia izan zala jakin eban.

Epaiari agertzen zan lez, Markiña'ko praillea izandako
Don Bartolome Madariaga'ri iñoren autortzak entzutea ta
sermoiak egitea galerazoten jakon, Erreiñu osoan bake
orokorra lortu arte. Gaiñera, aurrerantzean zelan jokatzin
eban kontuan artuko eutsoela. Etxebarri'n, bere jaiote-

rrian, bizitzera beartu eben, eta erriko arduradunak Don
Bartolome'ren jokabidea ondo zainduz, oker ba ebillan,
Bilbo'ko Auzitegi-Lendakariari jakinerazi bear eutsoen.

Auzi au gora-jotze barik, azkentzat epaitua izan zan,
auzidirua Bartolome'ri leporatuz. Gaitzespena Bilbo'n
1810'gn Urtarrilla'ren 5'an izenpetu ebenak oneik izan
ziran: Tiburcio Garcia Gallardo, Luis Juan Elexaga, Juan
Jose de Vildosola, Manuel Maria Aurrecoetxea, Ambrosio
Egia Yrigoyen.

Komentuaren zorigaitzak

1805'gn azkenengo illetan Bizkaia'n "Voluntarioak"
deituen talde batzuk Prantzesen aurka sortu ziran. Euren
jokabidea ez zan izan, zoritxarrez, gure erriak uste eta
itxaroten ebana. Prantzesen baimenez, Markiña'n erriko
semeak armetan jagi ziran "Voluntario"en erasoaldiei
gogor erantzuteko. Karmeldarren komentuan, toki egokia
zalako, ertzaiñak eta zaindariak jarri zituen, gudaletxe
biurtuz. Egun gitxi barru, an agertu ziran izkilluzuloak,
komentuari gaztelutxo baten irudia emon eutsoen. Prant-
zesak eurak be markiña-aldeetik igarotzean, bertan gerat-
zen ziran, eta geroago, baita euren gudaletxe-etxetat jabetu
be.

Gaspar Jauregi, "Artzañak" Lekeitio menperatu eba-
nean, an egozan prantzesgudariak atxillotu zituan. Marki-
ña'n beste ainbeste jazo leikeala-ta, emendik ospa ziran
Napoleon'en soldaduak. Onen eskuetan iraun eban aldian,
prailleen eleiza egur lastotegizat, eta su-izkilluentzako
zulotegizat erabillia izan zan. Sakristian mota guztiko
jan-gaiak gordeten ziran. Korua gaixotegizat eratu eben.
Komentuko beste bazterrak, alako "arrotzen" bearrak
beteteko lain.

"Voluntarioak", len esan dogunez, ez eben besteak
baiño obeto jokatu. Komentuko ta eleizako soruetatik
adrilloak jaso, eta eurekin izkillu-zuloak, ormak eta tximi-
niak egin zituen. Etxe-barru guztia ondatuta geratu zan.
Sakristiko kutxatillak, atek, leioen burdin-agak, danak
errotik atara ebezan.

Galbidetik gorde ziranak

Eleizeak amabi altara ta erretaula ederrak eukazan.
Eskerrak Markiña'ko abadeei, bederatzi erretaula ta amai-
ka mai Xemein'go ta Mertzedeko eleizetara eroan ziran.
Beste altara bi Etxebarri'ra. Kar,men'go Amaren irudia
Xemein'go parrokiak gorde eban, baiña agirian, ez ezku-
tuan.

Prailleak komentura biurtu ziran-
nean, altarok eta erre-
taulok ber-eskuratu ziran, eta zorionez, aurreko ta geroko
ezbeharrik ikusita be, emen daukaguz gurekin gure eguno-
tan.

Komentuak berak asko jasan ba eban be, eleizako bi-
txiak, ez. Dorreko kanpai biak, Prantzesen aginduz, Bil-
bo'ra eroanak iza izan ziran. An esku batzutatik beste bat-
zutara, aurrera ta atzera erabilliaz, azkenean prailleak
diruz ber-erosi zituen, eta oraindik be egunero euren soi-
ñuak eleizkizunetara deitzen dabiliz.

NIRE AITA ZANAK EDESTURIKOA

1903'garrengo urtea zan. Urte aretako urrillaren 11'an bizkaitarrak erromeria Begoña'n egin eben.

Ez gara zabalduko danak jakindakoa edestuten. Egun atan, Bilbo'ko eleiz-aurkakoak, Santander'tik gogokideak erakarri ebezan. Ogerleko bana emon eutsoen. Euren laguntzaz, santu-irudiak bota ebezan ibaira. Tiroka ibilli ziran ta erromes bat il eben...

Erromeria amaituta, orduñatarrak (sekulan be ez dot idatziko urduñatarrak) Abando'ko geltokirantz jo eben. Nire aitak-mutil koskorra amabi urteduna eleiz-mutil lez txirol bat eroian. Lekanda'tar Joxe, ezizenez "Garrafon"ek, beste bat. Biok laguntzen eutsoen estandarte ero ianari. Au Landakuze'tar bat zan, eztaikit ziur, Eloi nire adiskideren aita ala osabea zan.

Ba-joiazan Areatza'ko zubitit zear. Atzetik jarrai eutsen deardaka ta zemaika talde batek. Orduñatarrak bildurraren bildurrez ariñeketan ebiltzan. Landaluzetarrak banandu eban estandarteko zarrea ta, zigorra edo makilla balitz legez, erabillan, Berak be, zematzen eban arerioen taldea.

Nire izeko Pelajia'k artu eban nire aita. Atari baten sartu, eleiz-jantziak erantzi eutsozan, ta poltsa baten eurak ipiñiaz, geltokirantz jarraitu eben.

"Estación" kaletik zear, gauzak ez ziran ain txar-to, arin ibilteko lekua zan eta. Baña geltokira eldu-

tean, estuago ikusi ebezan euren buruak; bana-bana geltokian sartu bear zan ta ate-aurrean itxaron. Bitartean zalapartariak urreratu ziran.

Onek jadtixi agiñean ziran eta: une larri atan, atera zan trigo. Trigo mariñel izana Orduña'n etxeratua, moskorak artuten ta guzur andiak edestuten, bizi izaten zan. Gorputz andiko gizona, itzala, beso luze ta esku andiak eukazana; Baña koldar-Koldarra.

Abots adoretuaz, agintzeko oi dan lez, deadar egin eban:

"Ume ta andrazkoak aurretik; gizonak urrengo; ta oneik, niretzat utzi".

Ain gizon aundi ta ikaragarria ikustean, zalapartariak atzera egin eben, ta arrituta gelditu ziran. Orduan arin-arin geltokian sartu ziran orduñatarrak.

Bitartean, Trigo bere leengo adorea galduz joian, ta zalapartariak euren arritu-egotetik bihurtu. Alango baten, adore osoa galduta, Trigo'k ariñari emon gura izan eutson, baña atea itxita egoan. Geltokiko aldeko orma gañetitik saltu egin bear izan eban ta igeskeran espartaña bat galdu eban. Orduñatarrak ordez, lasai-lasai egozan, burdinbideko gurdian jesarrita.

IBANEZ KARLOS

“BULU-BULU”KO AZTIA

(1.ª SARIA)

Xabier, Baztango euskaldun gaztea, sendakaritza ikasten ari zen.

Egun baten, —berak zekin nola— Irugarren Mundu'ko berri illunak eraginda, mixiolari izateko asmoa artu zuen.

Ikasketak amaitu bezin laster, Loiola'ko Josulagundikoetara urbildu zan, anaidi artan sartu nai zuala-ta. Bai ongiatorri biotzkorra egin ere aiek sendagille gazteari, eta euren etxeko atek zabaldu.

Nobizi-arogan, bere gogoia sendotu ta gero, eleiz ikasketak egin, eta beste sei urteren buruan, apaiz eginda arkitu zan gure Baztandarra.

Lenengo euki zuan egokitasunean, agertu zien bere nagusieri, barruan zeraman mixio-zaletasuna. Beste gabe, izentatu zioten bere mixio-baratza, ots, Aprika'ren biotzean zegoen eremu zabal bat, oraindik mixiolarien oiñak ikutu gabea. “Bulu-Bulu” zuan izena.

Lurralde artako izkuntza eta izakera zerbait ikasi gabe, ez zuan nai izan bapatean bertan agertzea. Orregatik, aren auzoko mixio-lur baten gelditu zan, alditxo baten.

Baña, eldu zan lanari ekiteko ordua, eta an kokatu zan, egoki iruditu zitzaionian. Bulu-Buluko jendia, irudikor agertu zan, “azal-zuri” ura, euren lurraldean, oial-etxola zabaltzen ikusi zutenian.

Gero, eskopleta ederra bizkarrian, baso aldera egitean, Amerika aldeko eiztariren bat izango zala-ta, gelditu ziran geienak. Izan ere, noizbaiteko zuan, bere lagunak biotzez opaldutako, Eibar'ko eskopleta bikaña. Erri inguruak ezagutzeko, ibillaldi bat egin bearra zeukan, bere erreñu berri artan, eta... nork zekin? piztitzarren

bat ateratzen baziotzaion, zeren bearra izango zuan. Zena zelam ona da beti zuur jokatzeari!

Bigarren egunean beste ainbeste egin zuan, eta gero bere, etxolarantz itzuli zetorrela, ume talde batekin topo. Poztu zan gure mixiolaria, eta.

—Ara Aprikeraz egiteko lenengo egokitasuna —esan zion bere buruari.

—Arratsaldeon! —Agur egin zien mutikoeri.

—Arratsaldeon! •iek erantzun.

Ura poza Xabier'ena, bere lenengo Aprika'ko “alkarrizketa” ederki atera zitzaiola-ta. Batzuetan aotsez, urren-go berriz keñu ta imintzioka, eten-gabeko jardunean, eldu ziran danak, Aita Xabier'en etxola aurrera. Bien bitartean, makar asko somatu zituan Xabier sendagilleak, mutiko aien begietan, eta aietako bat en betondoan, beatza jarririk, galde egin zion mutikoari:

—Zuk emen miñ?

—Bai, beti miñ —arek erantzun.

—Nik sendatuko, esan, etxolara sartu eta zapitxo busti batekin agertu zan Xabier, eta berakin mutiko aien begiak igurtzi zituan.

Gero, goxoki bana eman ondoren.

—Biar berriz etorri-esan eta agurtu zituan ordukoz.

Bai etorri ure, urren-go egunian, goiz asko, baña ez mutiku aiek baka-rrik, baita aien eta auzokoen amak eta amonak ere, danak begiak igurtzitzeko eskean. Pozik egin ere Aita Xabier'ek, eta bidebatez, beste zerbait gaxotasun atxeman, aien gorputzetan.

Orduantxe eman zion asiera aita Xabier'ek, bere bizian amaituko ez zuan lanari. Ordu luzeak **juaten** zitzaizkion, gaxo aien eritasunak sendatzen.

* * *

Eta, Jakiña!, deabrua asarratzen asi zan.

Aita Xabier, lanez akituta, bere etxolara itzuli zan illunabar baten, atean zinzilik zegoen, kopiñ itxusi batekin arkitu zan. Eldu, andik kentzeko asmoan, eta oartu zan, azkon txiki bat zeukala, alderik alde sartuta. Bereala antzeman zion, borondate “oneko” norbait bere ondoren asi zela.

—Ba!... —esan zion bere buruari— Kristo ere ez al zuten ba ill? Gau artan iñoiz baño obeto lo egin zuan.

* * *

Sendakuntza Billa zetorkion jendea gero ta aundiago egiten ari zan. Eta orra!, errialde artako azti jauna, ia lanik gabe geldutzeko zorian. Izan ere, ura izan bait-zan ordurarte —“sendatzalle!! izenarekin-inguru artako jantzakurik audiena. Goxoak sendatu ez, baña aien bizkar, bapo bizi zan aiproja biurria.

Zerbait egin bear zuala-ta, egun baten, auzoak izutzen asi zan. An atera zan, mozorro jantzi izugarrian, dantza zoro eta imintzio itxusiak egiñaz, basoko jainkoen aien eta zigorra erri aren gañera erori zedilla, erre-guak egiñaz, atzerritarra onartu eta bera bastartzen zutelako. Ondoren, baso aldera jo zuan eta etzan agertu, aldi baten.

* * *

Eguerdi inguru bat zan. Aita Xabier'en etxola aurrean, iñoiz baño jende geiago zegoen, bakoitza bere

sendaketaren zai. Bapatean, emakume bat karraxika asi zen, eta eskutik zeukan umea besoetan arturik, igesiarri eman zion. Beste batek: Katamotoza, katamotoza!, oi u egin eta aintxintxiketan asi zan ura ere. Ala izaki. Baso aldetik, berreun bat pauso ingurura, antxe zetorren pitzi izugarria. Euren eritasunak aaztuta, danak arrapaladan iges egin zuten andik, bakoitzak aal zuan tokian, eskuta lekua arkitzera. Aita Xabier bakar bakarrik arkitu zan, basapiztiaren aurrean. Sartu bere etxolara, artu beti zinzilik euki oi zuan su-izkillua, eta erne jarri zan, etxola ondoan. Katamotoza gero ta alderago Aita Xabier'engana zuzenean. Baña. ara or, ogei bat pausoraño urbildu zitzaionian, danba, danba!, bi zartada, eta katamotoza ankaz gora. Ura poza ta zoramena, eta jendearen txaloak, euren gordelejuetatik urten, eta mixiolariak eratxitako piztitzarra, zerraldo lurrean ikusi zutenian.

* * *

Aste batzuk igaro ziran, beste gertakizun bereizirik gabe.

Baña, andik illabete ingurura, uluaka izugarri batek aztoratu zituan, Aita Xabier'en etxola inguruan bizi ziran auzoak. Illunabarra zanez, lastargiak eskuetan, asi ziran basterrak miakatzen, zer edo nor aurkituko, billa ta billa. Eta ara!. Xabier'en etxolaren gibel-aldera urbildu ziranian, antxe zegoen norbait, lurrian iraulka, oñazez egon eziñik, eta "illko naiz, illko naiz" oi u egiten zuala.

—Nor izango?... eta erriko aztia.

Zer egin etzekiela gelditu zan jendia. Eskerrak, berela agertu zala Aita Xabier, gaxo batzuk ikusi eta itzuli zetorrela. Aztiarengana urbildu eta laster antz-eman zion, sugereren batek kosk eginda zegoela.

Atera zorrotik bere ziztaillua, eta iru ebaki egin zizkion erriari, eskumatur koskatuan, eta aal zuan odol pozoitu geiena atera. Gero bi ziztada

sartu zizkion besotik, bata pozoiaren ayrkakoa, eta bestea oiñazea arintzeko. Ordukoz beste ezer egiterik ez, eta Aita Xabier'ek etxolara sartu arazi eta bere oean jarri zuan gaixua.

Urrengo goizerarte lo zorroan egon zan aztia. Erdi-esnatu zanian. Aita Xabier'ek beste bi ziztada sartu eta egun osoan, lo egin arazi zion. Etzan itxartu, illunabarrerarte. Baña une artan, aztiak bere burua bizirik eta aiñ ongi arkitu zuanian, eta Aita Xabier bere ondoan, lurrean exerita, bi malko aundi atera zitzaizkion, oraindik negar egiten ikasi gabeko begi aietatik. Bere ongilleari besotik eldu eta onela eraso zion'

—Zer dala-ta ari zera zu nere bizia salbatzen?. Nik ez dut bizitzerik merezi. Zuk ni ill egin bear ninduzun?. Ni iru bidarreraño alegindu naiz zure ondarena billatzen. Nik jarri nizun sorgin-kutuna etxola antean zinzilik, zuri begizkoa egin naian; nik xaxatu nuen katamotoza, basotik zuregana; eta atzo mendian jasotako suge pozoiduna, zuri kosk egiteko gogoaz, etxola ontara sarrazten nebillela, suga asarretu eta neuri kosk egin zidan. Orretxengatik naukazu orain emen zure eskuetan. Nik illtzea merezi dut eta ez zuk neri bizia lutzatzea.

—Gure Jainko onak bakarrik daki —erantzun zion Aita Xabier'ek— zuk zer merezi dezun; gizona ill eta bizi-arazteko eskubidea ere Berak bakarrik dauka. Neri, beti parkatzeko agintzen dit. Ez ori bakarrik, nere etsaiari ere on egiteko, gañera. Orobat, jakin bear dezu, Jainko ori zure eta nere aita dela, gizon guztien Aita. Beraz zu eta ni anaiak gerala.

Leen bi malko ba-ziran aren begietatik atereak, orain bi iturri biurtu ziran. Ixillune baten ondoren, aztiaren urrengo itzak zuek izan ziran:

—Zer egin bear det nik orain?. Ara, zure eskuetan jartzen naiz gelditzen zaidan bizi guztian, zuk esana egite-

ko. Orain arteko nere jokabide gezurti eta biurrikeriak, danak aaztu nai nituzke, eta zure Jainko orren agin-duetara jarri.

Luzaro gabe, bere etxera juateko eran sendatu zan gizona. Laster zan berriz itzuli, otarratxo baten oillo bat eta amar errautza zekarzkila. Aita Xabier'i eskeiñi, eta oso begi-argi, onela mintzatu zitzaion:

—Artu itzazuz, arren, nere esker inaren r̄ezaygarritzat.

* * *

Eta, ba aldakizute andik aurrera zer gertatu zan?.

Baa... azti ura izan zala Aira Xabier'ek lenengo bataiatutako kristaua. Baita ere, kistau-ikasbidea edeki ikasi ondoren, katekista edo irakasle jator biurtu zitzaion gizasemea. Ortaz gañera, beste edozer lanetarako, beti gertu aurkitzen zuan, langille trebea. Berak antolatu zion Aita Xabier'i, ain bearrekua zuan, etxebizitza eroso: arriz, bustiñez eta belarrez, ango erara egindako aterpe egoiki ta lasaia. Senda-belarrak ezagutzen ere, leendik, iaiua zanez, serbitzu ederra egiten zion Xabier sendagilleari, densadai onak eskuratu eta egiteko.

Orra ongi egiñaren fruttua!...

* * *

Aa... baña oraindik ez dizuet esan, Xabier'en mixio-gogoa nola piztu zen. Baa... Batxokiaren onspen eguna zala-ta, bere errian ospatu zan jaiaren bukaeran, erri guztiak, itzal aundiz, "Gernika'ko Arbola" abestu omen zuan, eta an bertantxe zegoen Xabier gazteari, b̄jotza urtu omen zitzaion, aako itz auek entzutean, ots: "EMAN DA ZABALZAZU MUNDUAN FRUTUA". Orra!.

BERGARETXE'TAR
JON JOSEBA

ZURIE, BIOTZ ANDI

(2n. SARIA)

Neska ederra zan Zuriñe.

Errietan banakak egoten diranetako.

Ez arro ta ez gangar. Edertasunak emoten **daben** itxureagaz, baiña oetik urten barik. Mardul, guri eta ondo betea.

Bakoitzak euki leiken zalekeri berezia kontuan artzekotan, lore zale zala esan giñei. Baiña ez eukan dirurik azoketan erosteko. Tarterik be ez mendira billa joateko. Etxe barruko batzuk euki eta zaintzen arretaz jarduten ekian.

Aita-ama zarrak zitun.

Unorez eta miñez jo eta erreta. Kontu artu bagako bizi baten zartzaroak soñez lotuegiak, igartuak eta sortuak.

Alkarri laguntzeko ez ziran. Bakar-ka euren buru zaintzeko gai be ez. Ez ebiltzan burutik ondo be.

Ez zitun ospitalera bialdu nai. Iñoiz orrelako zerbait esaten eutsen auzoak. Baiña biotza urratuko jakon berari. Eta eurei, zarrei, zer?

Bestetik ezin ori be. Etxe zar baten jaube ziran. Urtean ez eutsen emoten erri-zerga ordaintzeko be. Eta errenter-ruak ezetara be urten nai ez. Ez urten, ez geiago ordaindu, ez erosi.

Ba dagoz orrelako ainbat gertaera, geien be lendik etxekotasunean biziten oitu diran erri txikietako bizitzan. Bizimodua gora joanarren, legeari begiratu barik borondateari eutsia, buru aurkako diranak.

Eurak be, egia esateko, beste alaxoxe etxe arrakalatu baten bizi ziran. Gurasoak ez eukan karidadeko

laguntza besterik. Zuriñe etxeetako garbitasunak egiten ibiltzen zan, gurasoak erdi baketan izten eutsen ordue-tan.

Orrela, batetik janari ondakiñak, bestetik jantziak, eta eguneroko zerbait erosteko ataraten eban diru apuntxuagaz ozta-oztan bizi zan.

Arrantzale errietan oiturea zan txalopak arraiñagaz etxeratzean, orrelako premiñadunei zapitxo bete arrain emotea. Nai eta atsegin ez, oitura zalako, lotsatu barik joaten zan txalopa egalera. Eta molla gaiñean arrantzaleak berba gozuak esaten eutsezan, zirikadak be bai, baiña bera ez zan aizetuten eta irrikatzen. Itxurak ez dau beti eder egiten, erantzuten ekian. Mai utserako iñor gertuko ziñateke?

Sekula ez zan beragaitik arrokeririk entzun, ez eta arinkeririk eta gauza lizunik be.

Ez zan santuei musuka ebillan neska, ez eta eleiza zapalduten ez ekiana be. Orretan jatorra zan, zentzunduna. Bere jokabideagaz otoitza egiten ekiana. Jazan eta errukia eskiñiz, giza-legea beteten ekiana.

Beretzat gurasoak zama izugarri ziran. Baiña sekula ez eban pentsatu laga bear zitunik, ez euren kontura bere estutasunik arintzerik be.

Egun baten polizikoak deitu eutsen. Kezkati eta larri joan zan, zetaz deadar eutsen ezin bururatuta.

—Zuriñe Sagasti?

—Neu naz.

—Nun dabil zure semea?

—Zeñena?

—Barakaldo'ko agirietan agertzen da, aita ez ezagun eta zure seme bat.

Gorritu zan, sutu. Iñok ez eutsan ordurarte ezer esan. Ezin eikean ukatu. Ain zeatz esateko ba ekien zerbait. Urte mordoia zan, udaldiko serbitsu batera joan zala hotel batera. Gau alai baten, makurtu eben. Jausi zan. Pasako txoriak lez, jo ta pasa. Eta or konpon. Aitatasunik emon bear zanik be, lenengoz urratu ebanak bera ez zala lenengo eta bakarra izango-ta. Edozein emakume galdu lez. Andik laster kontuak. Utsunak eta betetasunak.

Zuriñe'k al bestean ezkutatu eban amakuntza. Bilbo'n bizi ziran lagun batzuk makurtu ziran eurena lez artzera etorri eikeana, eurak ortarako zailtasuna eukelako. Esandako eran, agertu zan mutilla lenengo egunetik eskiñi jakoen. Gero ez eurak egin eben alegiñik, ez Zuriñe'k alkar ikusteko. Maitatzen asi baiño len, obe zero aztu beretzat, eta bestientzat be ixilitasuna gordetea mesedegarri.

Baiña mutilla, bakarra, lotsa barik asi zan etxean. Ikastoletan lenengotan argi, gero alper. Kozkondu ala laster asi zan guraso-ordeei burukomiñak emoten. Borondatez artu eben a, etxe ondatzaille gertatu jakoen. Egunero nasteren bat, eroso-aldien bat, lapurreten bat, kaleko naigabeen bat. Etxea ondatu, osasunez eta ondasunez eta bera zero gaixotu.

Droga zaleen sarean nastatu eta jausi zan. Ez egoan iñor a mantsotuko ebanik. Bein, eztabaida zatar eta lotsagarri baten ondorenez, ama ordea zaurituta laga eban.

Polizikoak sartu ziran bereala. Mutillaren nortasunak batzean, ezin bete. Aitatasun eskutukoa salatu zan. Ama jatorraren aztarrena billatu

eben. Eta gero... jaiotzako saltze traturik egon ete zan, beste goraberekin batean, argitu nai.

Etxea goitik bera etorrita lez geratu zan Zuriñe. Aita zarren nekea gitxiena zan. A neke garbia zan, gogoz bateten ebana. Nekean ba barruko bakea sortzen autsena. Oraingoa laidoa zan. Eskutu edo ixilpeko baten salaketa lotsagarria eta ama baten noraiñoko erantzun bearraren kezka larri eta urduria.

Nai eta berak zer ikusi ez, esateko lapikoari ez urik ez gatzik emon, ezin ukatu ama zanik.

Eta maitasun bako sortzeari biderik eteten ausartu ez zan lez, bere ize-na zaintzearren iñori leporatu eutsen frutuari amatasunik ezin ukatu.

Polizikoak osoari erdia edo ta erdiari beste zati erdika kentzea oituten daben lez, ez eutsen osorik sinistu. Eta guzurrari tarte billatu nai eutsen.

Uriburura deitu ta an keztatiago euki eben.

Era bardiñean egin eben danak autorketa eta euren mesederako izan zan.

Guraso ordeak ez eutsen ezelako errurik leporatu nai Zuriñe'ri. Ba ekien onek ezagutu be ez ebalu egiten.

Zuriñe etxera biurtu zan. Esateko ez eban kalerik ikusten, lotsatuta. Zei-

ñiek zer esango. Besteen jardun asko beragaitik ziralakoan.

Gurasoak ez eben asko iraun. Bata bestearen atzetik laster il ziran, Zuriñe'ri azken lantsu eta neketsua emon ondoren.

Onek, egunetan be, mutillaren oroitzaz, droga zaletuen gaixoan jausita egozanean alde bere bizia eskintzeko gogoa igartzen eban beragan.

Baserri baten droga-zaletuen osasunerako edo barriz gizarteratzeko aterpe bat zabaldu zala jakin eban. Asko pentsatu barik eskiñi zan ango lanetarako, jan truke.

Gorriak igaro zitun lenengotan. Guraso zarrak zaintzea baiño minkorrago zan gaisorik ezin mendetuta ebiltzan gazte jausi arein arduetan jardutea.

Batzuk euken borondatea, indarrez, edo diruz edo gogotzarrez eroandako beste batzuk okertuten eben.

Pozik eroango eban ara bere semea, baiña berak ezagutu barik, nor zan konturatu barik, orrela bere eskintza eta alegiña maitasun zabala goz egiña gertatuko zalako.

Bein... bestetan baiño zaratatsuago igarri zitun gazteak. Ezin eben batzuk ezer artu barik iraun. Ez ekien zer egi-ten eben. Dana asarrea, egon eziña, erretasuna. Alkarri zirri ta tirri gei-ago, gero ta zaratatsu ta galduago.

Alako baten mutil bat ikusi eban aiztoa ataraten. Beriala gogoratu zan bere semeagaz. Bat bateko irudipena. Tartean sartu zan eta mutilla be konturatu zanarren, ezin eskuari atzeratu, indarririk galdu eragin. Odoletan geratu zan.

Zarataka asi zan mutilla, sartu bearraren asarre. Gora-goraka, berba lizun eta zatarrak esaten.

Zuriñe'k, zital, ixildu eragin eutsan.

—Zein zara zu orretarako?, jardetsi eutsan mutillak.

—Ibon ez al zara zu?, biotzetik urten autsan Zuriñe'ri.

—Zelan dakizu?

—Zeure ama nazalako!

Arrezkero sekulako lotsa zaintzen eutsan Zuriñe'ri.

Baiña andik atara egin bear izan eben Ibon. Gaixoa sakonegi sartuta eukan. Ez eukan burubide zuzenik. Zoro-etxe batera aldatu eben.

Eta Zuriñe'k an jarraitu eban, semearen urratsa gero ta biziago ebillala, gazte gaixoen mesedean eten bagako lanean. Gaixoak, deitura bakarra emoten eutsen: ZURINE, BIOTZ ANDI.

ZUBIKARAITAR AUGUSTIN

TRONPA TARTAINA

(3n. SARIA)

Neguko illuntze aretan be, kai-erriko eskola mutillak euren ikaste-zeregiña amaitu ebenean. kontsejupera joan ziran.

Tronpa-sasoia zan eta mutikoek, bakotxa bere tronpea eta kordela patrikeratik atara, eta guztiak asierako aprobak egiten zertu ziran.

Era ezbardineko tronpak edo ziboak eukezan.

Tronparik morroskoena Manuk eukan. Barrabaske-riak egiten ebazan tronpa mardo arek. Entzutetsua zan. Koloreak be ezarrita eukazan, biribilean, gerrian eta sorbaldan.

Aldi aretan eskolumeak ez ziran asaro bizi, eskoletan neguan berogailurik iñoiz ez iñoiz ez egoalako. Azkordiñak ugari izaten ebezan.

Ziboak arta-egurrez eta pago-egurrez egiñak izaten ziran. Aretxezkoak be bai. Ziborik eskasena Jon Txetxurena zan, tartaiña, saltaria, "lorik" egiteko gauza ez zana, arek teman baietz esan arren. Bai, tronpa-kordelik politena Jon-ena zan, baiña baita ziborik tartaiñena be.

Azkordiñak gora-beera, kontsejupuan tronpa-jokozko ariñeketak eratuten ebezan, aterpearen luzera osoan joan-etorrian iru-lau ostera egitea; **osterok** diruak egiten ebazan, tronpa dantzaria eskutik-ara diru ganera jaurti, eta onen abiadea amaitu arte, jokaldi bakotxean.

Dirua, txakurtzikia edo zentimo bikoa izan oi zan, batzuetan ondarrez igurtzi-igurtzi eginda, urregorri antza emonikoa. Talde bakotzak bere txanpona erabiltzen eban, tronpearen takarrekua artu-alean, saltoka edo narras ariñean aalik urrunen joan eirean. Ormara eltzean, bira beste aldera, eta olantxe, jokoa amaitu arte.

Joko ori mutikorik ausartenak eta leberrenak asten eban. Manu oneen artekoa zan. Beste mutikoak areei begira lotzen ziran, euren gogoa bataren ala bestearen alde agertuez eta atsegiñez denporea emonez.

Apur bat nagosiago ziran mutikoak zokondo baten alkarregaz batu eta etxean osturiko matakinto tabako apurra erretoko aalegiñetan ibilli oi ziran. Gauzak truk-egitea be, ardurazko zeregiña izaten eban: karameluetako pelikula ataltxuak, pelotak, liñoa sartzeko flautak, arrainetarako kordeletak eta jokoan ibilteko "zantarrak" eta

"kankarruak". "Zantarrak" pospolo kaxatxuen azalak ziran, geienak motzak, merkeenak; orraitño besteak, karuagoak irudidunak ziran; eta tratuan besteek lango bost edo amar balioten eban, plazakoa zelan ebillen. "Kankarruak" lustre-kaxa zapalduak ziran.

Oneek gauza guztiok jokoan erabili ezezik, truk-egiñez ganera, zorrean edo zorko be lagaten eutsezan alkarreri, baiña geroago, biurtze orduan, geigarri zerbait be lagatzailleari emotekotan. Dirua euken mutikoek, arria egoan lekuan txanpan eta parretean egiten eban, arik-eta abuzilla agertu, eta diruak bertan beera laga, eta ies egin arte.

Karrerren jokoa asteko, kontsejupue erdian egoan karaxarri bizi antzekoa zan unerik egokiena. Antxe ipinten eban txakurtzikia alde batekok zein bestekok.

Orduan, bakotxa bere tronpea dantzari jarrierazo, eskuagaz artu eta zirulika ziarduala, tronpearen zambulua erara parau eitean besoa erabili, eta aukeran dzin! tronpearen gerriagaz dirua jo, eta an joaten zan dirua urrun edo ez ain urrun. Gertaten zan tokian, barriro be, bear modu bardiña, bizkor, esaniko osterak amaitu arte.

Tronpea eskumeagaz artzen eban geienek; exkertiek, ostera, ezkerregaz zertzen eban euren jarduna.

Orretan aspertuten ziranean, korroan egiten eban Lurrean, arriganean beti be, gredeagaz edo untzegeaz oboa edo marra biribilla egiten eban, eta aren erdian obo-txua; au da, galtzen joiazenezako garbitokia, purgatorioa.

Biribileko joko orretan agiri izaten ziran tronpalari guztien erremintak: lodiak, sendoak, luzeak, zapal antze-koak, erkiñak. Tronpa sendoak, jatorrak, zirulikan eskuan artzerakoan gozogoak ziranak, astunak arren tronpa sedea eritxoena. Lurrera sokea askatu-ala jaurti eta lenengotan biribil andia egin eta gero, toki berebanean geratu eta "lo" egiten ebanak, beti biraka, lerdin, indarra amaitukeran itzartu, lura gerriagaz igurtzi eta narrasketa ostean geldirik lotzeko.

Erdiperdiko tronpak lo egitea, alperreko guraria zan, eta oneen artean tartaiña Indiako paria antzeko eristen zan, bazterren barragarri.

Egun aretan be, korruko jokoa egitea erabagi eban. Obo andia ta obo txikerra markau, eta ekin mutillan, aal

ebanak aal ebana. Ziboaren dantzaldia obo nagosiñ, barruan asi bear zan. Ibilkeran obo nagositik urten ezker, prest egoan barriro be jaurtiduteko; baiña obo nagositik kanporatu ezik, azken narrasa barruan egitezker, tronpeak askatasuna galdu eta obo txikian atxilo laga bear zan. Andik berez urteterik ez egoan joko bitartean, beste tronparen batek takarrekoa emonez, atara ezean. Norbera jolastu eta urkoarem tronpeari lagundu, zelanbait alkartasuneko jolasa zan. Iñoiz, besteren tronpea askatuerazo, eta norberena aske ez geratutea be, eitekeana zan. Jokoa- ren arriskua.

Gartsu eta joranez asi ziran mutikoak korruan. Tronpea erabilten azkarrenak nortzuk ziran antxe ikusiko zan. Bakotxa bere ziboari dantzan eragiñez' Tronpa batzuek, arro eta jasean dantzan egin eta obo nagusiaren marratik kanpora urten eben. Beste batzuk, barriz, jauskera txarra izan edo erabilea moldakatxa, obo nagosian, urten barik gerta. Eta orra! utsik egoan obo txikerra, tronpa atxilotuz beteten asi zan. Orduantxe etorren zerikusia ta biotzen pilpirea; barrukoak zeñek atarako, zelan urtengo, eta abar.

Jon Txetxuren tronpa tartaiña be, laster zan purgatorioan. Ango barre zoro eta zorrotzak!

—Aupari ta kazkarro madarikatuok alakuok! —esan eban ezpan —artean Jon Txetxuk.

—Ez ikaratu, laster atarako dogu-ta —zertu eutsan lagun batek.

Batzuek tronpak eta jaurti eta besteak tronpa askatuen jauskerearen zain, ikutu bigunez ala takarreko sen-

doz... askatuak izan eitezan, artega ta urduri, laguntasun eske, baiña griñaz eta keskatsu.

Aske ebiltzanen jauskera arro eta ibilte apaiñak, atsegiña eta garraztasuna, biak batean, emoten eutsezan ainbarik geratu ziran tronpalariei. Baiña itxaropena dirdiz euken bularretan. Aske laster...!

Alangoren batean Manu esku. Ziboari sokea egokiro lotu gerriraiño, eskumako besagaiñez indartsu bota eta artez joan zan obo txikerrera, an preso egozan tronpen gane-ganera. Bai aparau be!

Eta eukan pixuagaz eta eroian indarrez, etxunda egoan tronpa areetarik bat bizkarrean jo... eta glak! azpikoa erdibi egin zan. Askatzailea arro etorren obo nagositik kanporantz, mutiko batzuk deadar egin ebenean: "tartaiña"!

Jon Txetxu arnasa barik geratu zan. Orraitiño, bapatean, arro etorren Manuren tronpeari oratu, iesari emon, eta portuan moilla ertzetik uretara jaurti eban. Azxetik jarraitu eutsoen mutikoak begira egozan, eta tronpeak uretaratueran plost plost! dzanga egin eban. Ur azalean obo gero ta andiagoak zabaldu ziran, ixil ixilik.

Manuk, bere senera zanean, Jon arrapau gura izan eban. Alperrik. Onek, bere tronpa tartaiñaren azken bal-tzari gatxez erantzunik, ospa egin ebalako. Orduan, mutikoetarik batek, Manuri zearretara begiratuez:

—Plost plost... bai ederto esan dauala!...

ERKIAGA'TAR EUSEBIO

ZOZO TA ZOKUME

(URRERATZE-SARIA)

Zozo-arra sagar-adar mee baten puntan abeslari, berak maite dauan zozo-emeari biotzetiko maite-miña esaten:

—Maitetxo, non zagoz? Zergaitik ezkututzen zara? Zu gabe ezin naz bizi. Ara nire maite abestia. Txorro, txio, txio, txi, txi, txio, txio, txorro!

Egazkada biguna entzuten da eguratzean eta sagar-adar artean zozo-emea agertzen.

—Txit, txit, txit! Emen nago. Nik be maite zaitut ta zozo-arra dagon adar berean, ain zuzen be ondo-ondoan, tinkatzen dauz bere aztxoak.

Gorputzak urreratu dabez bata bestearenganaño. Lumen leuntasun biguna gozatzen. Ikara labor-oparo, estitsuz alkarragotzen dira.

—Ai, au poza! Zugaz ezkondu nai dot! —Diño eutsi-eziñeko eztandan zozo-arrak.

Eta ustekabean bien pikua alkar-tuta aurkitzen dira laztan bero zirratsu, luzean.

—Zuretzat naz! —maiteki zozo-emeak.

Baserri zaar, zuria. Urrin barik piñu orri baltzez illundutako baso arbolatsuak. Baserri ta baso bitartean, soloak. Eta solo inguruetan, masusta-sasi itsu-lodiak.

Sasitzan odoldiz eta buztin egiñiko kabi bat. Kaban lau arrautza. Gañean, zozo-emea. Geldi dago ta lumapean estaltzen dauz arrautzak eta gorputzaren beroz samur, maiteki berotzen. Arrautza orreetan bere geroa, bere mundu onetan irautea zaintzen eta ziurtatzen dau.

Zozo-arra ara-ona egaran dabil. Bizi-beirak jana billatzera daroa. Gorputz garbi-ikuziak be egin bear. Alakoan ba dator. Kabi ondoko sasi baten geratzen, eta abestuten asten da.

—Emen nago, maitetxo. Urten zu orain eta ibilli. Joan baso orreatik zean egurastera. Nik berotuko orain arrautzatxoak.

—Bai, senartxo, banao. Arnasa aize-gabiz barriztatzeko. Atsedentzer-a.

Egazkada bizkorrean aldentzen da, bidean bere senartxoari mosu txiki, arin bat emonaz. Zozo-arra arrautza ganean jartzen, ez daitezcan otzitu.

Orretara, aldizka, euren gorputz-peltasuna ezarten dautse arrautzei

zozo-aitamek. Bata, ibilleretan azperruta biurtzean, besteak, egalak zabalduz bizkor, urduri izten dau bere maite-kabia. Eta zearka ta gorabeeraka aldentzen da, ainbeste ordu-tan geldi egoteak gogortu dautsazan zain ta gierrak eta errotxoak astintzeko. Askatasuna-aizeak gozatzeko.

—Agur, maite. Gero arte. Laster biurtuko naiatzu aldizkatzera.

Egunak joan, egunak etorri, asi dira arrautzak apurtzen. Zozokumaxoak txiki, lumarik gabe, indarge sortu dira. Zozo-amak eginak egiten dauz bere kumatxoak epeletan gordetzeko. Zozoaita jateko billa dabil.

Udabarria jaio-barri dago. Martiaren azkenerantz da. Marti-zozoaren kumiak dira. Urte onetako eguraldiak aldakuntza aundiak darabiltz. Egun bat ona egiten ba dau, amar txarrak. Euria sarri ta ugari. Euriak ezotasuna ta otza dakar. Jatekoa billatzea gatx. Mamarroak eta aletxoak otzagaz batzuk ezkutatu ta besteak sortu ez. Eta au zoritxarra' Il dira iru kuma eta bat bakarra geratu da bizirik.

—Txiit, txiit, txiit —gose da zozo-kumea.

Aitamek janaritzen dabe. Beretzat dira alerik gozoenak, mamarrorik gurienak. Kabi ondoan zozo-aita edo zozo-ama agertu orduko, asten da zozo-kumea:

—Txiit, txiit, txiit —artega ta leiatu. Aitamek geiago emon eta arreta biziagoz "txiitak". Ase-eziña dala esan leiteke. Bere sabela ez da iñoiz batetzen.

—Geiago, geiago! Zein gozoa dan! Gose naz! txiit, txiit! ta pikutxoa zabaltzen dau eta burua jasotzen irrikaz, oldarrez, ito bearrean abestuz:

—Txit, txit, txit, txit, txit! Geiago, geiago; gose naz! Gose!

Aitamak zoli ta ardura guztiaz dabilz janari billaketan, geratu jaken kuma bakarra be ez dagien galdu.

Udaratu gara. Zozokumea apurka apurka kokortuz doa. Zozo-arrak apurtu dauz bereenganako lokarriak eta joan da. Bakarrik gelditu dira zozo-ama dau izena kumeak eta Zozo soilki amak.

Lur ganean mugitzen dira Zozo ta Zozokume. Egaran ez dabilzala esan nai dot. Txorien eta abere guztien zeregiñetatik beñena zer jan aurkitzea da. Orretan diardue gure txori-

txook. Zoragarriak dira ikusteko, jauzi ta jauzi, gora-beeraka egiten dabezan jaikitxoak!

—Ama, emen mamarro aundi bat-deiadar egiten dautsa Zozokumek Zozori.

Pikuka, batak alde batetik eta besteak bestetik, laster irutsi dabe mamarro mardula. Jagi dira egaz, leku barriak eta janari obeak aurkituko dabezanen asmotan. Egazkada luze ta neketsu baten ostean, eguna illuntzen asi dala-ta. sasitza batetan gorde dira. Errotxoak alkarren ondoan adartxo batetan tinkatu, ta laster artu dauz loak.

Eguzkiagaz batera jagi dira. Goizaldea sasitza inguruan emon dabe. Eguerdiantz Zozok egitzen dau:

—Goazen! Ea gaur bazkari oberik lortzen dogun nun baiten!

Ia, urtenagaz batera, dagozan leku-tik ur, aize bigunaren eraginez kulunkatzen dan garitza bat begiztatu dabe.

—Semetxo, or daukagu gaurko bazkaria.

—Bai, amatxo. Jatxi gaitzan, oraingoz barriro gosetuta nagota.

Ordurako garitza txoriz beteta egoan. Era guztietako txoriz. Kaxkabeltz, txindor, kardantzillo, berderoi, txontaz. Baiña, batez be, arta-txoriz. Onek konta-ezin aalak ziran.

Jatsi dira. Guztiak uste dabe euren gosea asetzeko bazkaltoki egokiagorik ezin zeitekeala aurkitu. Baiña, garitza-jabeak entzun dau ainbeste txoriren poz-iskanbilla. Bekoki-izerdiz erein eta arduraz zainduriko garutza Jesus batetan galgaraurik gabe geldituko zalakoaren bildurra sortu jako barnean. Artzen dau eskopeta. Gari solara urretatu ta pun!, pun! tiratzen dau.

Txori guztiak, ego-ots zaratatsuz, uxatzen dira. Banakaren bat illotz geratu da. Geienak, larri, baiña bizirik apartau dira zorionez. Oneen artean Zozo ta Zozokume.

Udea aurrera doa. Udaldia bai gozoa. Arbolak igaliz beterik. Gari ta bedar aletsuak. Mueta guztietako kokoak... Eta, gero, eguraldia. Basorik-baso ibillaldi luze ta alaigarriak egiteko egokia. Eguratzean, aizearen eraginez, gora-beera kulunkarietan jolasten dira zein ariñagoa. Egazkin leiaketa gogoratuaziz, zilipurdika. Nork zilipurdi geiago; nok bizkorrago!

Jolasa bide arturik aztertu dabez orri berde-argizko pagadiak. Tantai errimez edertutako arestiak. Orri zabalak dingilizka eta bitartetan kiri kiñoz josiriko gaztañadiak.

Gosea ixiltzeko beste jan dabe, eta orain jolas-gurez dago Zozokume. Zozok bere kumeari atsegin emon nairik laguntzen dautsa jolasetan. Danak arritzen dau Zozokume. Dana zoragarri deritxo, dana da berro beretzat-eta.

—Ama, zer dira arbola onek?

—Pagoak —labur Zozok.

—Ama, emen ezbaridiñak ikusten dodaz. Oneek zein izen dauke?

—Onek aretxat dira.

—Ta, ama, beste oneek! Orri zabal gerizatsua dauke.

—Orreen izena gaztañea da.

—Ama... Ama... Ama...

Egaran eta itz egiten nekatu da Zozo eta badiñotsu Zozokumeri:

—Atsedean alditxo bat artu bear dogu, oso ebaindurik nago-ta. Gaurkoz naiko ibilli garala uste dot. Azpian daukagun arbola ori artuko dogu gure egon-lekutzat.

Egoak eragitea itzi dabe. Gorputzean tolestu. Noizean beinka zabal-tzen dabez ez arbolaratzeko ariñegi. Eta, azkenez, adar aundi ta luzeden arbola baten adarretan, ain zuzen pago urtetsu baten adarretan. kokatu dira.

—Nik ezin dot geiagorik. Biar arte arbola au biurtuko gure egoitz. Zuk adarrik adar jolastu nai badozu...?

Atsedean alditxo bat artu dau Zozokumek. Gero ezin da geldirik egon. Eta asi dau bere jolasa. Salto ona. Salto bakoitzean bere kantu-teenta.

—Txit! txit! txit!

Gaberorduko, orraitio, logureak otzandu dau eta lo egiteko Zozoren ondo ratu da beti bezela.

Beetatik mendian dabilzian Zozo ta Zozokume oraindiño ez dira mendi ganera eldu. Goiza argitzen asi orduko itxartu dira biak. Besperan joan be, goizetik joan ziran lo egitera. Goiz argi ta irribarretsua agiri da Mendi tartetatik eguzkia kiñuka asi.

Zozokume, intxartu daneko, eguna baizen alai aurkitzen da. Ama azper-tzen dau bere amaibako itaunez. Ezin ixildu. Ez dago geldi be. Orain emen, gero or, an agertzen. Ain zuzen, egoitz biurtu eben arbola ondolik errekatxu bat ioian marmarka.

—Ama —diño Zozokumek— gaur be ibillaldiran bat egingo dogu, ezta? Ain atsegin iat gauza ta leku barriak ikustea! Gaur mendi-gañera joan gura neunke.

—Bai, semetxo. Baiña, leenengo, ura edan eta txukundu bear dogu errekatxoko ur garbietan.

Txukundu ta bat batera ez ziran abiatu mendi-ganerantz. Goisaldubarik ezin bidaldi luzerik egin. Lurganean leenengo, arbola zaarraren

azal-ustelpean gero, laster aurkitu dabe asetzeko beste.

Indar-barrituta asi dira mendian gora. Mendi-kateko atxetaraño arbolaria dai. Nekutzen diranean alako arbolaran baten atsedendia egiten dabe adoreak zuzpertzeko. Eldu dira nozbait Zozokumek ain gogo biziz irrikatzen duan mendi-ganera.

Emen aizea garbiagoa da. Arnasa errezago artzen. Odola zanetatik badoala sentitzen. Bizi barri bat sortu ete jakonen zalantzan geratu da Zozokume. Alaitasun sakonagoa, gorputz bizkorragoa nabaitzen dauz.

—Ama, an beko troketan bizi bearran, zergaitik ez dogu goi oneetan gure bizilekua egokitzen?

—Ez dakit, ba. Beti izan gara an. Gurengandik ori ikasi dogu. Nire gurasoak, nire aitita-amamak, zure aita ta ni be an bizi izan gara beti. A da gure lurra. Gu beti egon gara an pozik.

—Nik emen gurako neuke, ba.

—Zuk emen gelditu gura badozu, tamal aundia eroango dot, baiña gelditu. Ni neu enoa emen gelditzen. Ni beetara joango naz barriro.

Aurrez-aur dagoz mendi-katea. Kate orretan era askotako mendi puntak ikusten dira. Batzuk estalkitza lurra dauke. Bedar-berdezko ariz birkositako oin-azpiko leun, astiña. Besteak arkaitz dira. Lerden, mugigatx, setati jasoten zerurantz. Ertz zorrotz eta leku ibilgatxez beterik, sekretoak arduraz zaintzeko bear bada. Ausartuak eta kementsuak bakarrik eldu leitekez bertaraño. Eta atx arteetan zartakak eta arbolatxoak apaingarri.

Begi aurrean daukaz atxok Zozokumek.

—Goazen, beintzat, atx-punta orretaraño. —Atxetatik altuena bereizten dautsa.

—Orraño lagunduko dautsut. Baiña ni enaz or geldituko. Nire etxea an bean dago. —Orretara erantzun dautsa igarri daualako bere semetxoaren asmoa.

Egazka, egazka. Gora ta gora. Azkenaldi au nekegarria, Zozorentzat batez be. Bidean atsedendia artu bear dabez goiko gurenean garailari izateko. Egazkada laburrak egiten dabez bakoitzean. Orain atx-urteera baten gelditzen. Bigarren agazkadan arkaitz bitartetatik sortu dan zartaka txikian. Gorago atx-arteke lur-zati bedertsuan. Eta andik. azkenengo ekinaldian, gallurrera.

Zozo zoratuta dago. Barruak ezin dau eutsi atsegin ain noroa. Pikua zabalduz, bularrak edatuz eta arnasaldi sakon eta luze bat emonaz, zantzoka ta ukukuka asten da. Lerturik,

kanpoan agertzen bere poztasun ugarria.

—Ama, amatxo, geratu gaitex emeeeeeeen!

—Ezin, maite; ni beak deitzen nau. Andiko oiartzuna dator eten barik nire gogo-belarrietarra.

—Oso ondo biziko giñake, ba, biok emen.

—Bai, bear bada. Baiña zergaitik ez beetan?

Udaldia eriotzarrantz doa. Koskortzen asita dago Zozokume. Gizontxo nabaitzen bere burua. Askatasun egarria sentitzen asi da. Amarenganako maite kateak ezpetxe itxi bat begizatzen jakoz. Berekeriz josiriko eta amarentzat zirriztada zorrotz, mingarri diran itz onek jaurtitzen dauz arro ta burua jasorik:

—Zu bazoaz, be, ni emen gelditzen noa. Ez dot etxera biurtu na-. Goi arnasatsu ta zeru-ertz zabal eta luze au izango da nire etxe.

Eta egazkada bizkor eta trebe batez mendi-katean suntsitu da.

—Zozokume!... Zozokume!... Semetxo!... Zatoz alkarrekin biziteko! —deiadarka Zozok.

—Baiña Zozokumek ez dau entzuten. Galdu da betiko.

Zozo itun, negarrez gelditu da. Luzaro egon da itxaroten, Zozokume biurtuko dalakoan. Au ez da geiago agertu.

Alperrikako itxarotea dala konturatu danean, negarrak pizkat legortu, burua makur eta biotza errotarrian birrinduta lez, txiki-txiki egin-da, miñez lertuta beetarantz joten dau.

Udearen eriotza udegoinaren jaiotza da. Udaldiaren ostean udegoina biztu da. Zugatzak billosik geratu dira. Leenengo euriteak agertzen; eguratza otzitzen da negu-ateak zabalduz.

Eta gero negu-gorria bere edurtzakaz, itxuran lillugarriak, baiña izatez anker ta maltzurak.

Zozo-aita non-ete? Bizi? Eta Zozok bere bakardadea eroaten ikasi-ete? Eta, batez be, jasan aal izan ete dauz Zozokumek goiko atxetan neguan izaten diran ozmiñak? Ez dakigu. Ez jakin orretan geratzen da gure kondairatxo.

LEJARTZA'TAR SEBASTIAN

EZAUPIDEA:

Txoritxua

Norat ua

Bi egalez

Airean. (Euskal-abesti batetik artuta).

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (I)

ZER'en irakurlea naz agertu zanetik, baiña bertan idazterik bein be ez jatan bururatu orain arte. Azken-aldi onetako neure idazlantxoak Donostia'ko EL DIARIO VASCO'n argitaratzen ditut. Eta gure bizkarrak urtez bateten joanala, lanerako gogoia be makaltzen doa ta lan geiagotan ez neban sartu nai.

Baiña ZER 76'garren zenbakiko "Bizkaitarra Bizkaieraz" izeneko idazlana irakurrita bertara zerbait bialtzeko gogoia etorri jat.

Argitaratuko ez diran neure sasi-liburuen artean bat "Lau urteko neure ibillerak" izenekoa da. Nire adiñeko euskaldun guztien bizitzako lau urte nabarmenenak guda denporakoak izan ziran. Baiña ni ez nintzan gudan ibilli; Prantzia'ra iges egin neban. Beraz, aberriaren alde egindako ezer andirik ez dor edestuteko, arro ta pozik emon leitezkean albistarik iñori jakin eragiterik ez daukat.

Baiña Prantzia'ko piñadietako lana ta gero emengo kanpo konzentraziñoi ta laneko batalloiak ezagutu nituan. Egia esan eurretan ba balioko kontakizunik ez jatan gertatu. Alan be neure ibillera guztiakaz eun ta geiagoko idaztia idatzi neban. Ta bertatik artu ta idazlan batzuk moldau neikez aldizkari onetarako bere zuzendari diranai baderitxoe.

Ni Franco'ren gudak, Donostia'ko gaiso-etxe baten atrapau ninduan. Urte a, 1936'garrenekoa ez neban izan ona, bada bi bidar gaxo egon nintzan. Lenengo neguan sukarrakaz, iru illabetean lanera barik ta illa batzutara bigarreanean.

Gaioxoa beti da txarra etxean, baiña batez be beartsuen etxeetan eta aldi areitan. Gizarte Laguntza'k bear aiñako laguntasunik ez dauskuala emoten olako aldietan-da zer esana naikoa izaten da. Baiña orduan laguntasun txikienik be ez geunkan langillioik, nik ez neban euki. Alogerik irabazi ez eta osagillea ta osakaiak oso-osorik geuk ordaindu bear. Ta orretzaz gaiñera aotik asko emon bearra izan eban amak niri.

Ordurako ta asko lenagotik aita barik gengo-Dan.1926'garren urteko Otsailean il zan min biziagaz Bilbo'ko Basurto'ko gaixo-etxean eta antxe obiratu eben. Ama ta sei anai-arreba giñan. Lau arreba ni baiño zarragoak eta bat gazteagoa. Beraz, seme bakarra nintzala esan bearrik ez da. Ordurako arrebarik zarrena lekaima egoan Aragoia'n eta urrengo arreba bi ezkondata mariñelakaz. Beste bi arrebak neskame egozan. Neure irabazia ta txikia bera eukan amak; alan be azkenengo urte bietan Aurrezki Kutxa'ko libreteta ekarri ta eunka batzuk aurreratu zituan. ¡Eskerrak arei! Iñoren laguntasun premiñarik ez genduan izan. Izan be berakatz atala baiño piñagoa zan gure ama.

Ta San Pedro'tako an nengoan ni barrero gaixorik oean. ¡Alakorik, urte barruan bigarren aldiz!

Ta asi giñan osterata be osagillea etxera ekarten. Egunak etorri ta egunak joan, nitzat ez egoan obeagorik. Nun obeagorik? Barruan, zauriak eukita legez, ¡ai! esan eragiten eustan zirkin txikienak bere.

Ez eban ezer esaten osagilleak, gaixotasuna ezagutu ez kontixu. Ta estutu zan ama; zerbait asmau bearra egoala ikusi eban, bestelan nireak egin ebala-ta. Ta Donostia'ra eroan nai ninduala osagille andiagoren bategana esan eutsan Don Luis osagilleari ta ea zer ereisten jakon. Don Luis'ek ondo artu eban gure amaren naia.

Egia, nik neuk ez neban ezer txarrik pentsaten. Ta asi zan ama Donostia'rako osterea gertuten, batez be nitzat zein osagille ona izango zan jakiten. Laster jakin eban ori. Lerenbur'engana eroango ninduan. Lerenbur onen izena ezaguna zan gurean lenagotik bere, gure ugazabaren bi edo iru seme-alabei berak ebakuntzea egin eutselako.

Ta Garagarrillaren (Gipuzkeraz Uztaila) 15'ean edo 16'ean taxisean eroan ninduen Lerenbur'ek ikusi nindeian.

Onetan zori ona izan genduan. Egun bat edo bi atzeratu bagiña matxinadeak etxean atrapauko ninduan eta lenengo egunetan iñori ezin joanda, Donostia'ra ez beintzat, an Leiola'ko gudariak Gobernuaren aurka jagi ta erri osoan tiro ots andia zan-da, nireak egingo eban.

Gutziz ondo joan nintzan beribilean, gaixorik ez bainengoan (ez banengoan lez) ez miñik eta ez ondoezik; alako biotz biztu-aldia neukan. Ta geroago an zain euki neban arreba Mercedes'ek esan eustanez orduan bildurtzeko itxurea baneukan be, berebilletik jatsi ta bakarrik, iñori eldu barik sartu nintzan gaixo-etxean.

Ta ordutik laster an gengoan osagillearen aurrean. Prantzes euskalduna zen eta jakiña euskeraz berba egin genduan. Ama ta bion artean esan geuntsan gaixotasunaren gora-bera guztia, Eta asi zan neuk esandako tokian atzaparrakaz bultz eta bultz. Eta bultzada bakotxean begiratzen eustan ezelako muzein kiñurik egiten ete neban. Ta ea miñik zartzen neban itandu austan. Ni baiña ixillik. Geroago bere bardin, jaramonik bere ez bere itaunai. Len ia iru astean, iru aste luzean, kendu barik euki neban miña, orduan, jakin bearra zanean, atzaparren bultzadakaz bere ez neban sentiduten. Ta nik sentiduten ez nebal, baietzik ezin esan. Ta miñik ez nebal artzen bere ez neutsan esan nai, ba-nekialako nire gatxa berak beatzakaz bultzaten eban tokian egoala; ta ezetz esaten baneutsan, an ez nekala gatxik pentsako ebalako, ta nun neukan ez ebalako igarriko.

Ta ez neutsala erantzuten ikusirik Lerenbur'ek amari nigaitik esan eutsan:

- gorra al da?

Barre purrustadeak urten eustan orduan. Ta asi nintzan berbetan. Egun aretan, ez nekiala zergaitik, miñik ezer ez nebal sentiduten, baiña bestetan antxe artzen nebal ikutu utsagaz.

Ebakuntza txiki bat egin bearra nebal esan euskun eta bertan geratu bear nintzala; ta oean sartu ninduen.

Ta ordutik irugarren egunera-edo egin eusten ebakuntzea. Gurdian, etzunda, eraman ninduen. Nasai joan nintzen. Kezka txikienik bere ez neukan. An, eskuak eskuakaz eta oiñak oiñakaz eta gero esku ta oiñak maiko kakue-

tan lotu eustezan. ¡Ondo lotuta geratu nintzan! Gero, kasu antzeko tresna bat musturrera urreratu ta klorofornua emoten asi jatazan.

¡Zer zan a! ¡Ito egin bear! Norbaitek beso sendoakaz samatik eldu ta urpean ito arte eukitea beste izan zan a nitzat. Gero, ekatxak ataraten daben soiñu zoliaren antzekoa, baiña milla bidar andi goa entzuten neban. Ez dakit zenbat denporan egon nintzan alan. Danetara bere segunduren batzuk izango ziran. ¡Baiña bai luzeak! Ta gero lo nasai.

Ta esnatu nintzan geiago logura barik esnatzen danaren antzera begiak iragi nituan. Gora begira nengoan kristal txikiz egindako goiko ispilluari begira. Min ta nekerik txikienik bere ez neban. Baiña oean sartu ta laster etorri jatazan ebakuntzaren ondoko larri uneak eta egun-edo ez neban ona igaro.

Baiña ez zan ori bakarrik. Lengo estutasunak burura etorri jatazan eta negarrari emon neutsan. Orduan, gasak txotxinduta nengoala esan eban lekai me edo baten batek. Baiña ez zan egia. Gaur bere ez nago aztuta estutasun aregaz eta orduan gogoratu utsak ikaratuta nindaukan. Badakidala uste dot itotea zer dan.

* * *

Ebakuntzea egin eusten baiño egun bat edo bi lenago militarrek matxinadan jagi ziran barria zabaldu zan. Baiña bai alako zerbait itxaroten zalako ta bai azkenengo urteetan matxinadakaz oituta gengoalako, albista arek ez eustan bat be arrararik egin. Gaiñera lenengoan ez egoan ezer Donostia'n.

Baiña bi edo iru egunera, asi ziran tiroak eta ez gitxi; batez be arerioen egazkiña etorten zanean jan entzuten zan tiro zaparradea! Ez datik Lerenbur'en gaixo-etxea nun egoan; kanposantu ondoan egoala entzun neban bein. Baiña tiroka ebiltzanengandik urrun ez egoala bai esan daiket. Baten, neure arreba Mertzede's'egaz batera, Donostia'n neskame egoan ondarrutar neska bat etorri zan neu ikertzera, Don Andoni Basterretxea abadearen arreba, ta an entzuten zan tiro otsagaz bildurtuta burkoa buruan ebala egon zan arratsalde guztian. Ain zuzen bere arratsalde aretan bala bat sartu zan gure gaixo-etxean, ni nengoan gela ondoko ataditik barrura ta beko olean tronpa soiñua lakoa ataraten asi zan; eta ori entzunda len aitatu-tako neska biak balea artzera urten eben, baiña eurak esan

ebenez, bai laster laga bere, atzaparrak erretea nai ez baben.

Gudeak artu eban jitea ikusirik Lerenbur'ek laga egin eban betiko gaixo-etxea ta Prantzia'ra joan etxea lendik bere laguntzaille zan Jaen osagilleren kontura lagata.

Leiola'ko gudariak ziran Gobernua'ren aurka egoznen arteko gogorrenak. Goizeko bostetarako egunero asten ziran kañoi danbadaka ta eurak esnatzen ninduen.

* * *

Egun batzutara, Leiola'koak menderatuak izan zira-nean, ixildu ziran tiro-otsak. Baiña gure gaixo-etxera (ta besteetara be alan izango zan) gudan ebiltzan gazte zaurituak ekarten isi ziran. Ta bein baiño geiagotan, zeregin orregaz ara urreratutako gazte ondarrutarrak ni ikustera etorri jatazan. An erriko gazte bat gaixo egoala-edo esaten eutsen eta an etorten jatazan eta orduko kontu batzuk esaten genduzan.

Gero ta zauritu geiago etozan edo ekarrezan gaixo-etxera. Beraz, arentzat tokia izateko, txarto ez gengoan guztiak joan bear giñala esan euskuen. Ta etxeruntzkoa gertuten asi giñan. Berebillera oiñez joateko gauza eta nintzan jakin bear genduala ta saioa egin genduan. Amak lagunduta galtzak jantzi nituan eta oetik jagiten asi. Ez nintzan zutik geratzeko gauza; oiñak lurrean ipiñala gorputza beruntz joan, trapuzkoa bainintzan. Zutiñik egoteko gauza ez nintzala ikusita oean sartu ninduan amak.

Baiña ez zan ori estututeko gauzea. Ez dakit egun aretan ala biaramonean urten genduan etxe aretatik ogei egun inguru bertan eginda. Bizkai aldera ostera bat egiteko zan berebil batekoak bide batez artu ginduzan. Osatetxeko mutil gazte batek artu ta airean eroan ninduan beribillera; ta errira eltzean aulki baten artuta etxera igo ninduen.

Ebakuntzea ta gastuak sei milla erreal inguru izan ziran eta Mertzede's arrebeak ordaindu zituan.

¡Agur, ainbat urtean kanpoko ogia janaz irabazi ta gero bear izango zituan neska gaztearen diru ederrak!

Diruak damu barik atara zituan.

Etxera eldu ta egun batzutara asi nintzan oetik jagiten eta laster kalera urten neban. Asieran ezkerre okertzen nintzan gerritik, baiña luzaro baiño lez joan jatazan gaixo itxurak. Ta jan eta ibilli, ba-niñoian sendotzen.

KAMINAZPI

ESKU-IDAZKIAK (AZKENA)

XXXII GORAPEN-ABESTIA

- ¹⁷ [Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna],
nigan jarri dozuzan espirituakaitik.
Nire miñean erantzuna [idoro nai neuke]
zure egitada zuzenak.
¹⁸ eta zure erabagien biotz zabala azaltzeko.
Zeure eskumearen egintza aaltsuak
eta nire leengo pekatuen parkatzeak [abestuko dodaz].
¹⁹ Otoitz egingo dot [nire pekatuakaitik]
eta nire egintza gaiztoakaitik,
nire biotzaren biurritzeagaitik.
Gaiztakeriaz itundu naz.
Zure burubideetatik kanpo [ibili naz].
Ez naz alkartu [...].
²⁰ Zeuri soillik dagokizu zuzentasuna eta zeure izenari bedeinkapen betikoa.
Zeure zuzentasunaren arauz erosten dozu zure morroia,
²¹ [dongak ondatuak izango dira].
Jakituriari jarraitzea eukeratzen dabenen bidea
bikaiña egiten dozula ulertu neban nik.
²² [Onik ataraten dozu] zure aurka pekatu egitera makurtzen dana,
alakoa beeratuaz eta zigor mingarrien bidez [...]
zure biotzari [...]
²³ [...] [Galerazo egiten dautsazu] zure morroiari zure aurka pekatu egitea
eta zure bideetan koloka ibiltea;
gogor egoteko [indarra emoten dautsazu],
²⁴ baita bide zuzenetan, Zuk maite dozun edozetan,
Zuk iguintzen dozun edozetatik urrun
eta zure begien aurrean ona egiñik irauteko be [... zure maitasunagaitik]
²⁵ nire barruan, nire espirituak zeure morroiaren (espiritua)
billatzen dau-ta [...].

KEREXETA

QUMRAN'GO ESKU-IDAZKIAK
XXXIII GORAPEN-ABESTIA

- ²⁶ Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
nire gaiñera zeure Espiritu Santua isuri dozulako.
Garbitu egin nenduzun [edozein gaiztakeritik].
²⁷ Sendotu egin nenduzun zure Alkartasunean.
Gizonagandik gorde egingo naz [...]

Nok idoroko nau?
²⁸ Billa dabizan guzti areik,
maitatzen dabena guzti areik [...]
betiraundanik betiko [...]

XVIII sorta

- ¹ Zeuk ezarten dozu argia,
² betiko dizdiz egiten dauan argia.
³ Izan be, Zugaz argi amaigabegea dago
⁴ eta lokatzeaz egindako entzumena zabaldu egin dozu,
⁵ zeure morroiaren edorea [jasorik],
sendotasun betikoa billatzen dau-ta [...].
⁶ Dizdiz egin begie zure [ezkutu] miragarriak
⁷ zure berbak entzuten dabezan guztien begietan.
Zeure esku aaltsuaz eutsi zeustan
⁸ ni zeure eskumearen indarraz zuzentzeko.
⁹ Ez eskutatu zure eskua erriari,
itunpenari alkartzen yakon edonor

- ¹⁰ betiko zeure aurrean egon daiten.
[Iturburu bat] edegi zenduan zure morroiaren agoan
¹¹ eta aren miñean [zeure aginduak] ezarri dozuz:
euròk berak ulertzean,
gizonari somagarri egin dagitsezan,
au neu lako apalai adierazo dagitsen.
Buztiñezko izakia urtenezoteko edegi zenduan sabela.
¹³ Bideak, emakumegandik jaiorearen erruak [...] aren egintzakaitik.
Egi-iturriruntz erakarri zenduan
zure indarraz Zeuk batu dozun izakia,
¹⁴ zure bakearen mandatari bera izan daiten,
beartsuai barri ona iragarririk,

zeure errukien arauz.

¹⁵ [santutasun]-iturrira [edatera eroaten dozuzala],
espiritu damutuai edo atsekabetuai
odorea emonik, aintza betikoaz.

¹⁶ Emakumegandik jaiotako a [...],arrotu egiten da].

¹⁷ Zure zuzentasunean [... iragarten dautse au]

¹⁸ orrelako gauzak ikusi ebezanai [...].

¹⁹ [Zelan ezagutu aal izango dot ori]

nire begiai Zeuk agertzen ez ba'dautsezu?

²⁰ Zelan entzun daiket ori, nire entzumenetan

Zeuk joerazoten ez ba'dozu?

Arrituta geratu naz, Itza erdainbagearen entzumenera

iragarria izan dala jakitean.

²¹ Gizonaren biotzean [zeure egia agiri izan da].

Guzti au, zeure naiagaitik beragaitik asi zarala burutzer

konturatu naz, ene Jaungoikoa.

²² Zer da gizona, miragarri guztioak [aregan burutu dagizuzan]?

Zu bai agertu zarala indartsu zure asmoetan!

Zuk bai ezarri dozula guzti au zeure aintzarako!

²³ Zeuk sortu zenduan [espirituen] gudaroztea,

gizonai zure egitsariak

eta [emakumegandik] jaiarentzat ezarritako aginduak azaltzeko ezaguera.

²⁴ Zeure Alkartasunean [irauten dot] zeugaz [...]

autsezko biotzari, euren buruak [gaitz guztitik] zaindu dagiezan

²⁵ Eta maltzurkerietatik, guzurrezko erizpidetik,

iges egin dagien, zeure errukiaren arauz.

²⁶ Lopatzazko izakia naz ni;

nire biotza, arrizkoa: zegaitik izango naz epaitua

onetzaz ezer ikustekorik izan ez ba'dot?

²⁷ Izan be, [zure asmo] miragarrietan,

autsezko nire belarrietan

zeure erabagi betikoak ezarri zenduzan.

Bai, arrizko biotzean zizelkatuta!

²⁸ Barriro etorrerazo zenduan Zugaz Alkartasunean sartzeko

²⁹ eta [zeure itunpenean] iraunerazoteko, iraupen betikoan,

egunsenti betikoaren argitan.

³⁰ Bakezko epe jakiñetan.

³¹ Autsezko izakia naz ni [...]

³² zabalduko dot.

AZKENA

Ementxe amaitzen dira **Qumran'go Salmuak eta Gorapen-abestiak**. Maitasunez eta begi onez euskeratu doguz. Alkartasun Barriko gai aundiak, batez be onbideratzearena ta Jaungoikoaren Espirituaren goi-eragiteari dago-kion zintzotasunarena, Itsaso Illaren ertzetan asten dira.

Kristo'ren aurrelari dan Joan Bateatzaillearen ondoan, beste aurrelari-talde ez-ezagun eta bikaiñok be leku goragarrietan jarri bear doguz; geroago, basamortuko ondartzan geratu ziran obiratuta.

Elduko ete-ziran zein zan benetan bide barria ikustera?

Didaje liburuak, Eliza jaiobarriaren antxiñenatariko agiri bikaiñak, egiazten dauskunez, Qumran'go bakartietari-ko askok, euren politika ta erlejiño-lekutik atarata eta Erroma'n joputzat salduta, Uri aretan aurkitu eben Israel'en gogo sutuz itxaron eben erantzuna.

Orduan, basamortuko lagunarte txiki a lagunarte askozaz aundiago ta betiko baten asiera benetan bera zala konturatu zan: lagunarte barri ori Kristo'ren Elizea zan.

KEREXETA

“EL BATUA” EZ DA EUSKERA (II)

ERITXI BATZUK

*“Ez dago beste euskerarik
erriak egiten dauana baiño”.*

R. M. AZKUE

“Batua, euskeraren ondatzalea da”.

JUSTO GARATE

“Franco’ren diktadurak baiño kalte geiago egin dautso euskereari ‘el batua’k.

KEREXETA

*“Negargarria da gure euskeraren ordeztu ‘el batua’ idazleak erabiltzen duten ez-euskera zakar eta
erdal-kutsukoa”.*

J. J. AZURTZA

*“Kontuan artu dagigun euskerea salbatuko dauan izkerea, asabengandik etorritakoa, inguruan
dirauana, dala, ta ez iñongo asmakizunik”.*

ZUBIRI’TAR INAKI

*“Euskaltzaindia izan da —eta da—, gure betiko euskera zapalduta, ‘el batua’ zatar ori indarrez ezarri
naiean dabillena”.*

LATIEGI’TAR BIXENTE

“Ausartuko ete da iñor batu ‘arrotz’ ori bizkaitar neska-mutikoen belarrietan bultzaka sartzen”.

J. L. ZURUTUZA “ARENDA”

*“Erri onek naiago du erderaren bidea artu aditzen (ulertzen) ez dun euskerakin beti barna lertzen ibi-
lli baño.*

Erriari bizkarra eman ezkeru, ez dauka etorkizunik euskerak”.

INAKI EIZMENDI “BASARRI”

“Erriko euskerea galtzen bada..., gure arimea, gure sena, gure biotza galtzen da”.

GALLASTEGI’TAR KAULDI

*“Bizkaiko Jakinzale ta Jakintzalari diran baimendun eta Irakasleak ataraten daben aldizkariaren
idazpuruan irakurten da: ‘Bizkaian filosofia eta letretako eta zientzietako doktore eta lizenziatuen kolegio
ofiziala’.*

Orrelan euskerea erreztu egiten dala diñoe batzuk. Bai, baiña ori, erreza izan arren, ez da euskerea”.

OLAZAR’TAR MARTIN

*“Txori bakoitzak bere abestia,
Erri bakoitzak bere izkera,
Eta euskaldunok EUSKERA”.*


ZIPITRIA’TAR ELBIRE (G. b.)
(Aukeratzaille; Bilbao’tar Jon E.)

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia